

Irurtzunen, bi mila eta bederatziko otsailaren hiruan, arratsaldeko zazpiak direnean, Ohiko Bilkura egitearren Irurtzango Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Francisco Goicoechea Arbizu
Jose Javier Recalde Maestre
Saray Ongay Garcia
Jose Luis Viñas Estudillo
Jose Peinado Cuesta
Luis Enrique de la Calle Moreno
Maria Nieves Uterga Juango
Eduardo Murugarren Frances
Francisca Arruabarrena Quintana

Eta idazkari naizen hau, Santos Iragui Hualde.

Ezin etorria adierazi du Xabier Unanua Goicoecheak.

AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu den 2009ko urtarrilaren 14an egindako Bilkuren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharrik egin ez zaionez, aho batez onartu da.

ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN IRAKURKETA

2009ko urtarrilaren 14az geroztik Alkatetzak eman dituen Ebazpenak irakurri dira eta, honenbestez, zinegotziak jakinaren gainean daude.

SAKANAKO MANKOMUNITATEAK UR HORNIKETAKO HERRIKO SAREAREN INGURUAN EGINDAKO ESKAINTZA

Sakanako Mankomunitateak interesaturik egon daitezkeen Sakanako udalerriei ur zerbitzua herriko sarean emateko aukeraren inguruan azterketa hasteko egin duen proposamenari buruzko espedientearen dagoen dokumentazioa aztertuta, eta Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, honako hau erabaki da aho batez: Sakanako Mankomunitateari jakinaraztea Udala hau bat datorrela ur

zerbitzua herriko sarean emateko azterketan parte hartzearekin, eta aipatu azterketa egiteko beharrezkoak diren datuak emanen dituela.

TURISMO XEDEKO KALITATE PLANERA ATXIKITZEKO PROPOSAMENA

"Nafarroako Mendialdea" Turismo Xedeko Kalitate Planera atxikitzeke proposamenari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, honako hau erabaki da aho batez:

"NAFARROAKO MENDIALDEA" TURISMO XEDEKO KALITATE PLANERA ATXIKITZEA ESKATZEA.

Kontuan izanda udalerrria "Nafarroako Mendialdea" turismo-xedearen eremu geografikoaren barnean kokatuta dagoela, Cederna Garalur Elkartek aurkeztua Ekonomia Ministerioko Turismo Idazkaritza Nagusiak eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak sustatzen duen "Turismo Xedearen Kalitate Programara".

Kontuan izanda turismo-xedeei kalitate kontzeptua gehitzeak Toki Administrazioak eta Autonomia Erkidegoetakoak inplikatzeko dituela, eta turismoaren kalitatea Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Mendialdeko Kalitate Mahaiaren turismo-politikaren oinarrietako bat dela.

"Nafarroako Mendialdea" xedeak Xedeko Kalitate Programa lantzen du, eta Cederna Garalur Elkarteak izendatzen du proiektuaren kudeatzaile. Halaber, interesa duten udalen parte-hartzea Cederna Garalur Elkartearen bitartez koordinatzen da.

Entitate honek "Nafarroako Mendialdea" Turismo Xedeko Kalitate Planean parte hartzeko interesa kontuan hartuta, eta alkatetzak proposamena eginda, osoko bilkurak honako hau erabaki du:

1.- Cederna Garalur Elkarteari eskatzea Irurtzun udalerrria "Nafarroako Mendialdea" Turismo Xedeko Kalitate Planaren barnean sartzea.

2.- Erabaki honen berri ematea Cederna Garalur Elkarteari.

3.- Alkateari eskumena ematea akordio hau gauzatzearen, hobetzearen nahiz zuzentzearen ondorioz sor litezkeen dokumentu guztiak sina ditzan, halakorik beharrezkoa balitz. Alkateak egindakoaren berri emanen du udalbatzak eginen duen lehen bileran."

AMAIUR HERRIAREN DEIA

Nafarroaren konkistaren 500. urteurrenaren inguruan Amaiur herriak egin duen deiari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, honako hau erabaki da Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas eta Murugarren jaunen, eta Ongay eta Arruabarrena andreen aldeko botoarekin; Peinado eta De la Calle jaunek eta Uterga andreak abstentziora jo dute:

“1. Irurtzongo Udalak, duela 500 urte Nafarroaren, hau da, gure Estatuaren independentzia defendatu zutenei agur eta ohore egin nahi die. Hortaz, duela bortz mende Tuteran, Lizarran, Burgin, Donibane Garazin, Garruzen, Noainen eta bertze anitz lekutan gure libertatearen sugarra babesteko borrokatu zirenak omendu nahi ditu. Amaiurko gazteluan Nafarroaren independentziaren alde bere bizitza eman zutenen kemena gogoan, Amaiurko herriaren deialdiari jarraikiz, euskaldun guztion Nafarroa bizirik dela aldarrikatzen dugu.

2. Udal honek bat egiten du 1512ko konkistaren bosgarren urtemuga gogorarazteko abiatuko diren ekimenekin eta, bere ahalen arabera, laguntza eskainiko die.

3. Amaiurko herriak 2009ko otsailaren 1erako egina duen deiarekin bat egiten dugu, eta gure ordezkaritza igorriko dugu bertara, Amaiurko herriaren aldarrikapena gure egin dugula jakinaraz dezan.”

Uterga andreak UPN udal taldeko kideen abstentzioa azaldu du. Haren esanetan, gertakari historiko hura gogora ekartzeko ekitaldien alde badaude ere, horretaz egiten den aurkezpenak ikuspegi desitxuratua eman dezake, eta erabilpen nazionalistarako bidea eman dezake.

Iriarte jaunaren iritziz, herri ekimena da, irekia eta anitza, edonork bat egiteko modukoa.

Murugarren jaunaren iritziz ez da harritzeko UPN udal taldearen jarrera; izan ere, alderdi horretako agintariek Gaztelak Nafarroa konkistatu izana plazaratzen ari dira Nafarroa bere borondatez atxiki izan balitz bezala.

KAWNEER ESPAÑA, SLren BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA PARATU DU IREKITZEKO TASAREN LIKIDAZIOAREN KONTRA

Abenduaren 2ko 208/2008 Alkatetzaren Erabakiaren bitartez onartu zen manipulatu eta aluminiozko profileriako nabea irekitzeko, eta erakusketa aretorako solairuartea egiteko lizentzia tasaren likidazioaren kontra Kawneer España, SLk ezarritako berraztertze errekurtsori buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, honako hau erabaki da aho batez:

- 1.- Abenduaren 2ko 208/2008 Alkatetzaren Erabakiaren bitartez onartu zen manipulatu eta aluminiozko profileriako nabea irekitzeko, eta erakusketa aretorako solairuartea egiteko lizentzia tasaren likidazioaren kontra Kawneer España, SLk ezarritako berraztertze errekurtsoa onartzea.
- 2.- Aurreko kitapena kontuan hartuta, Kawneer España, SLri honek ordaindutakoa itzultzea, aurreko kitapena kontuan hartua.
- 3.- Erabaki honen berri ematea Kawneer España, SLri eta Udal Gordailuzainari.

KULTURA ARLORAKO DIRU-LAGUNTZAK

Kultura arloan hainbat diru-laguntza emateari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Kultura Batzordeak 2009ko urtarrilaren 28an egindako Bilkuran onartutako proposamena aztertuta, ondoren aipatzen diren diru-laguntzak ematea erabaki da aho batez, 2008ko Aurrekontu luzatueta 4515.48202 partidaren kargura:

- 1.500,00 euro Erraldoien konpartsari.
- 1.500,00 euro, dultzaina-joleen taldeari.

BATZORDEEN INFORMAZIOA

Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumena.

Udalburuak jakinarazi du Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 13. zenbakian, 2009ko urtarrilaren 30ekoan, Herri Lanen eta Komunikazioen kontseilariaren 1/2009 Foru Agindua eman dela argitara, zeinak behin-behinekoz "NA-7010 errepidea (Astrain – Irurtzun). Ibiltartea: Irurtzungo saihsbidea" proiektua onartzen baitu. Halaber esan du hilabeteko epean egonen dela jendaurreko informaziorako, proiektuak eraginen dien entitateek esan beharrekoa entzuteko. Esan du jasotako dokumentazioaren kopiak egin direla horretan interesa izan dezaketen pertsonak kontsulta dezaten, eta proiektuaren jendaurreko informaziorako epearen berri eman diela saihsbidearen aldeko plataformari. Halaber, esan du udal arkitektoari txosten bat lantzea eskatu diola, eta afera aztertze aldera, Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen batzordearen bilkura deituko dela.

GALDE-ESKEAK

Ez dago.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zazpiak eta hogeit hamar minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiaztapena egiten dut.